


ZENBAT BURU
Maritxu Loiola

BERBETAN
Iban Barrenetxea
ilustratzailea eta
komikilaria

KIROLA
Igerilekuko berri-
kuntza lanak

KULTURA
Urruzuno Literatur
Taldea

**GEHIGARRI
BEREZIA**



Ezkontzak 99

BARREN

1999ko apirilaren 16a
VII. urtea - 274. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



U R R U Z U N O L I T E R A T U R T A L D E A



U R R U Z U N O L I T E R A T U R T A L D E A



Urruzuno Literatur Taldea:
Literaturzale gazteen txokoa

“Hitzak haizeak eramaten, eskribitzen dana gelditzen”



Mendarozabal Industrialdea z/g.
Tarteko solairua, 2B · MENDARO
Tel: 943 75 52 24 · Faxa: 943 75 52 32

**ENPRESA TXIKIEI
eta ERTAINEI,
MERKATARI EI eta
PARTIKULARREI
ZUZENDURIKO
AHOLKUAK.**

**KONTABILITATEA,
NOMINAK,
ASEGURU SOZIALAK,
FISKALA
(IRPF, BEZ,
SOZETATE ZERGA),
ENPRESA BERRIEN
SORRERA etab.**

**AHOLKULARITZA
TEKNIKOA
ASEGURUETAN.**



Treki berria!



MARITXU LOIOLA

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzeko dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

Herriaren etorkizuna

Begiak itxi eta gure begirada atzera badoa, oroitzenen, natura zoragarri batean, abereekin, etxekoekin eta noizbehinka auzoko lagunarekin igarotako une politak datozkigu burura. Inguru aproposa, mendiz babestutako baserriarena, gure izaeraren sentiberatasuna garatzeko.

Bizidun baten-tzat garrantzitsuak dira bere bizitzako lehen oroitzenak. Izan ere, bizitzaren zutabe dira, batez ere, ingurukoek berearekin duten jarrera kontuan harturik.

Hezitzaileen eta gurasoen egitekoa ere ez da nolanki-koa umeengan irizpideak landatzera-koan, batez ere, inguruan duenaren balio neurketa egiterakoan. Gaur egungo heziketa kontsumismoan eta norgehiagokan oinarritutako teknizismo hutsa da, eta sarritan lortu ezinezko horrek ematen digun goibeltasuna eta haserrea eraman ezin-koa da. Ikusi baino ez dago ume askok jasaten duen depresioa, eta ukazina da hori heziketaren, familiaren eta gizartearen ondorioa dela. Gaur egun, ume bat ez da ohartzen goiz gorri eta iluntze gorri baten

ondorioak zein izan daitezkeen. Jadanik ahaztu zaigu uzta mota bakoitza zein garaitan eriten zen. Adibidez, hostoa irtean artoa; edo hostoa erortzean garia; eta San Lorentzotan arbiak; zeren azken batean gizona eta natura bat dira. Loturari-rik ez bada, ondorioak ditu, eta horren lekuko da orain gertatzen den desoreka. Badakigu garaiak desberdinak direla, denbora aldatu egi-ten dela; agur lehenari eta ongi-etorri garai hauei. Baina gizonaren osaketa betidanikoa da, eta nahiz eta ikuspuntua aldatu, lurak hor jarraitzen du.

Argi utzi nahi du- dan bakarra zera da: naturaren zati bat garela, abere- eta jende- inguratuta. Horiek dira guk ditugun baliabideak eta gu geu izan behar gara gure baitan ditugun arazoei erantzuteko gai. Baina horretarako heziketa aldatu behar dugu, gure sentimenduen bidez inguru-rua ohartu eta baliatzeko, zeren gaur egungo heziketa oinarri-rik gabeko etxe baten parekoa da, hau da, haize bolada batek jota erortzeko arriskuan dagoen oinarri-rik gabeko etxearena."

Argi utzi nahi du- dan bakarra zera da: naturaren zati bat garela, abere- eta jende- inguratuta. Horiek dira guk ditugun baliabideak eta gu geu izan behar gara gure baitan ditugun arazoei erantzuteko gai. Baina horretarako heziketa aldatu behar dugu, gure sentimenduen bidez inguru-rua ohartu eta baliatzeko, zeren gaur egungo heziketa oinarri-rik gabeko etxe baten parekoa da, hau da, haize bolada batek jota erortzeko arriskuan dagoen oinarri-rik gabeko etxearena.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarria

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA

Maitane Cid

MAKETATZAILEA

Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga



INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



A-8 doan. Larunbata 17, Inpago Eguna

Elgoibarko Herri Batasunak bat egiten du *A-8 Doan Plataformak* eta talde ekologistek egindako ausnar-ketarekin:

- Peajea diskriminazioa da.

Bai Europan, bai espainiar estatuaren beste komunitate autonomoetan, autobide azkar garrantzizkoenak peajerik gabekoak dira. Euskal Autonomi Erkidegoko beste zenbait eskualdetako autobide azkarrak doanekoak dira edo peaje subentzionatua daukate.

- Hiru arrazoi autopista doan izateko.

A-8 autopista herri onurakoa da. N-634 errepidea ez da autopistaren alternatiba. A-8 autopistaren peajea ordaintzeagatik jasan dugun eta jasango dugun kostu sozioekonomikoa oso altua da.

- Zer dio Estatuko Boletín Ofizialak kontzesioari buruz?

Kontzesioa *Europistasi* eman zitzaion 35 urterako 1968ko ekainaren 6tik 2003 urterarte. Enpresa honi adjudikazioa emateko erabili zen irizpideetako bat kontzesioa ahalik eta motzena izatea zen. Estatuko Boletín Ofizialak dionenez, kontzesioa kontratuan jarritako urteak betzerakoan amaitu beharko litzateke eta autopistaren jabetza esku publikoetara pasatu behar zen. Baina orain 40 urtez luzatu nahi dute kontzesioa. Gogoratu behar dugu, autopista eraiki zenean, desjabetza erabili zela herri onura interes partikularren gaitetik zegoela argudiatuz. Gaur egun, oster, finantza interesak inposatu nahi dizkigute herri onura ahaztuz.

- A-8an peajerik ez egotea denontzat da ona.

Errepideetako segurtasuna demokratizatu egiten du. Bizimodua hobetu egiten du. Lanpostuaren eta bizilekuaren arteko joan-etorria merketu egiten du. Datozen belaraldiei utziko geniekeen lurraldea, bizitzeko atsegina eta lan egiteko konpetitiboagoa litzateke.

A-8 autopista nahikoa ordaindu dugu. Beraz, ez zaitzatela engaina. *A-8 Doan Plataformak* eta talde ekologistek, larunbaterako, hilak 17, deitutako "Inpago eguna"rekin bat egiten dugu. Kotxe karabanen 5 zutabe irtengo dira protesta egiteko. Deba Hegoko zutabea Elgoibarko Lerungo Industrialdean goizeko 10:00etan bilduko da.

Elgoibarko Herri Batasuna

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.


GALDERAK

◆ Irakurle batek deitu digu honako galdera luzatzeko: **“Deba Gorenean jadanik jarri dituzte ontzientzako kontenedore horiak. Deba Barrenean ba al dago ontziak biltzeko kontenedoreak jartzeko asmorik?”**. Deba Barreneko Mankomunitatera jo dugu eta zera erantzun digute: “Bai, hone-lako edukiontziak jartzeko asmoa badaukagu, baina oraindik zenbait gestio egiteko daude, eta uda alderako Deba Barreneko herrietan kontenedore horiak jartzea espero dugu”. Kontenedore hauetan plastikozko ontziak, latak eta tetrabrikak bota ahal izango dira.

◆ Emakume batek deitu digu honako kexa hau azaltzeko: **“Iarunbat eta igande arratsaldeetan Madalako parkea motozaleen bilgune bihurtzen da eta haurrak daukagunok ezin izaten dugu bertan lasai egon. Lehengo Iarunbatean motor batek ia ume bat eramane zuen aurretik. Udaltzainak ez dira bertara agertzen ezta ertzainak ere. Elgoibarraren ez daukagu parke askorik umeek trankil jolas dezaten. Beraz, dagokionari eskatu nahi diot egoera hau kontrola dezala”**.



◆ San Roke auzoko bizilagun bat etorri zaigu honako bi kexekin: **“batetik, Pista Beltzaren gainean eta 28 eta 30 zenbakietako etxebizitzaren artean dagoen estalki edo zementuzko egituraren (argazkian agertzen dena) goiko partea, zikinkeriaz beteta dago eta garbitzeko ardura duenak zerbait egin beharko luke zikinzeria hori kentzeko. Eurria egiten duenean gainera, are zikinagoa geratzen da. Bestalde, Pista Beltzean, garajeen parean dauden alkantariak ez daukate beharko**

luketen taparik. Hori dela-eta, zikinzeria errazago sartzen da eta pilatuta geratzen da. Eurria dagoenean urak gainezka egiten du izugarritzko potzuak sortuz”. Gizon honek gaineratu digunez, jadanik azaldu ditu bi kexa hauek Udalako Hiri-gintza sailean. “Orain dela 4 hilabete egon nintzen bi arazo hauei buruzko argibideak Hiri-gintza sailean ematen, baina argi dagoenez ez zituzten nire eskaerak aintzat hartu, ez behintzat epe motzean konpontzeko asmoarekin”.



KIDE ILEAPAINDEGIA

AGURTZANE LIZARRITURRIK
BERE BEZEROEI JAKINARAZI NAHI DIE
BERRIRO ERE ILEAPAINDEGIA
ZABALIK DAGOELA.

*Aurrez deitu zerbitzu hobea
izan dezazun!*

San Frantzisko, 40-3B · Tel: 943 74 00 69

● Udaltzaingorako bi lanpostu

Elgoibarko Udalak bi udaltzain berri kontratatuko ditu lehiaketa publiko bidez. Deialdi honetan parte hartzeko eskariak Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dira apirilaren 29a baino lehen. Informazio gehiago nahi duenak Udalera deitu beharko du (943 74 10 50).

● Jaiotzeko urrezko ezteien ospakizuna

1959an jaio eta aurtan 50 urte bete dituztenek beraien eguna ospatuko dute maiatzaren 22an, zapatua. Guztiak elkartu, agurtu eta garai zaharrak gogoratzeaz gain, egungo gauzei buruz hitz egingo dute egun honetan. Eguerdiko 12:00etan meza izango da eta ondoren bazkaria Herri-Gain jatetxean. Bazkal ostean Beti-Jai orkestak alaituko du giroa. Jai honetan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 7a baino lehen 7.000 pta. sartu beharko ditu honako kontu hauetako batean: Lankide Aurrezkia (3 0 3 5 0 0 0 7 2 6 0071014623) edo Kutxa (21010108740122644149).

Lizarra-Garaziko alderdien deialdiek erantzun zabala izan zuten

Plaza Handiko kontzentrazio isilean 250
lagun inguru elkartu ziren

Lizarra-Garaziko alderdiek eta sindikatuek deitutako lanuzteak erantzun zabala izan zuten Elgoibarren joan den astelehenean, hilak 12. ELA eta LAB sindikatuen arabera, komertzioen eta tabernen %90 itxita egon zen eguerdiko 12:00etatik 13:00ak bitartean eta lantegien %70 ere bai. Ikastetxeei dagokienez, Herri Institutuko irakaslerik gehienek lanuztea egin zuten eta baita zenbait ikasle ere. Gauza bera gertatu zen Ikastolan, baina zerbitzu minioak mantendu zituzten. IMHn nahi zuenak lanuztea egiteko eskubidea izan zuten. Gestio Eskolan eta Herri Eskolan ordu horretan ikaslerik ez zegoenez, ez zen geldialdirik egin. Azkenik, Pilar ikastetxean klaseak normal eman ziren. Bestalde, 12:00etan Plaza Handian "Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza" lemapean 250 pertsona inguru elkartu ziren. Bertan, langileak, ikasleak eta Udaleko ordezkariak egon ziren ordu erdiz bilduta. Langileak kon-



Plazan ezezik lantegien aurrean ere egin ziren kontzentrazioak.

tzentrazioak lantegien aurrean egin zituzten, beraz, oso zaila da zenbat jende aterata zen kalkulatzeko. LABeko ordezkariak esan digunez, "paroa arraroa izan zen, baina era berean, positiboa. CCOO sindikatuak lanuzterako deirik egin ez zuen arren zenbait lantegitan sindikatu honeko langileek ere bat egin zuten geldialdiarekin. *Etxe-Tar* lantegian ere bazkideek lanuztea egin zuten baina ez langileek". Bestalde, zapatuan Bilboko manifestaziora joateko bi autobus aterata ziren Elgoibartik.

LITERATURATIK MUSIKARA

ASIER SERRANO

✓ TOKIA:

Lanbroa Taberna

✓ EGUNA:

Apirilak 23, ostirala
"Liburuaren eguna"

✓ ORDUA:

Gaueko 23:00etan

Antolatzailea:

URRUZUNO
LITERATUR TALDEA



Laguntzailea:



Elgoibarko Udala



KAROBI



San Frantzisko, 37
Tel. 943 74 06 37

Musika Bandak Evaristo Izeta musikoa zena omenduko du



Evaristo Izeta musikoa 1899ko maiatzaren 1ean jaio zen Elgoibarren. Bere jaiotegunetik 100 urte betetzen direla-eta, Udaleko Musika Bandak omenaldia egingo dio maiatzean. Ignacio Bereziartua musiko elgoibartarrarekin egin zituen ikasketak eta ondoren, Bilboko Kontserbatorioan ikasi

zuen. 16 urte zituela, Gorlizko Musika Bandan hasi zen zuzendari eta lau urte bertan egin ostean, Zumaiako Bandako zuzendari postua eskuratu zuen. 29 urterekin Santa Cruz de Tenerifeko bandarekin hasi zen. Zuzendari ezezik konposagile ere izan zen Izeta. Bere zaletasunak oso ezaguna egin zuen irlan eta bertan ezkondu zen Maria Teresa Armasekin. 1957ko apirilaren 7an hil zen Tenerifan. Bera jaio zenetik 100 urte igaro direnean omenaldia egingo diote Elgoibarren, eta jakin dugunez, Kanariar irletan bizi den bere emazteak poztasunez hartu du berria.



"Zinea eta emakumea" zikloaren aurkezpena egin dute Ongarrik eta Haizeak

Haizea Emakume Taldeko kideek eta Ongarri Zine Klubeko partaideek "Zinea eta emakumea" zikloa aurkeztu zuten joan den astelehenean, hilak 12. Atzo hasi zen (hilak 15) eta apiril osoan bost pelikula eskainiko dituzte, guztiak emakumeen ikuspegitik eginak. Zikloaren antolakuntzan Emakundek ere parte hartu du eta Udalak ere bere laguntza eskaini du. Ongarriko eta Haizeako kideek herritarrak ziklo honetan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte. Bide batez, gogorazai nahi dute, ziklo honetako emanaldiak gaueko 22:00etan hasiko direla pelikula bakoitzaren aurretik aurpezera egingo baita.

Aste Santuan Orion Atxutxiamaikarekin

Apirilaren 7tik 10era bitartean, DBHko 1. mailako 32 haur izan dira Orioko barnetegian Aste Santuko oporrak pasatzen. Elgoibarko Izarra Elkarteko *Atxutxiamai* Begirale Taldearen ardurapean pasatu dituzte opor egunak. Esan digutenez, hasieran eguraldia nahiko kaxkarra izan zen baina gero, hobetu egin zuen eta irteerak egiteko aukera izan zuten. Orio ikusteaz gain, Zarautzera bisita egitera joan ziren eta zoragarri pasatu zutela adierazi digute. Argazkian *Atxutxiamai* Begirale Taldearekin joan ziren gaztetxoak ikus ditzakegu.



Etery Prietoren margoak hilaren 23ra arte izango dira ikusgai

Etery Prieto artista eibartarraren margoen erakusketa pasaden ostiralean inauguratu zen. Eibartar hau errusian jaio zen duela 50 urte eta 10 urtez Moskun bizi eta gero, 40 urte egin ditu Eibarren. Euskadiko hainbat txokotan bere margoak erakutsi ostean, Elgoibarrera 50 lan ekarri ditu. Izan ere, hilaren 23ra arte egongo dira ikusgai Kultur Etxean. Urte askoan damaskinatua egin zuen eta badira 15 urte profesionalki koadroak margotzen hasi zela. Etery Prietoren tenperak, pastelak edo oleoak ikusi nahi dituenak egunero izango du horretarako aukera, erakusketa zabalik egongo baita astelehenetik igandera arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

Hartu al duzu parte Lizarra-Garaziko alderdien deialdietan?



CARMEN AGEA

56 urte, etxekoandrea

Ez dut deialdietan parte hartu, baina ongi iruditzen zait akordioa eta elkarren arteko batasuna egotea. Bakerako bidea oso positiboa da.



JOSE ZUAZUBIZKAR

76 urte, jubilatua

Bai, parte hartu dot. Azken aldixan indako gauzak apoiatu bihar dia. Biontzia geratzia nahi dot eta orduan ez dabe inungo aitzakixarik eukiko kontra itxeko.



JOSU JUARISTI

21 urte, langilea

Ez dot parte hartu, ekintza puntaletara ezin izan nai zelako oin arte jun. Hala ere, ados naio akordiuakin eta ahal doten neurrixan apoiatzen dot.



EULOGIO MANCEBO

35 urte, udaltzaina

Ez, normalean ez naiz gai horietan sartzen. Kanpotik begiratuta akordioaren idea ona dela uste dut, baina ez dago erabateko batasunik eta horrekin ez nago ados.



MILAGROS OIARZABAL

67 urte, etxekoandrea

Ez naiz egon kontzentratu zuetan. Baina uste dot Lizarra-Garazi akordioa haundia dala eta horren inguruan pasatzen dana ulertzeko ahaleginak itxen ditzut.



MILA OSORO

43 urte, etxekoandrea

Bai, ahal izan doten guztietan izan naiz. Lizarra-Garaziko akordioa oso ondo dao, baina lehenengo herrixan apurtuta dauden harremak konpondu bihar dia.

Txandakako Enpresa Injinerutza

Enpresariekin lanean garatutako lanbide proiektua.
Lan kontratua lehen egunetik.

Matrikulazio epea zabalik

- Datorren apirilaren 19tik maiatzaren 26ra arte, Txandakako Enpresa Injinerutzako sarrera-probetarako matrikulazio epea zabalik egongo da. Probak maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean egingo dira IMHko instalazioetan.

■ Makina Erremintaren Institutua
San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar

■ Tel: 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
E- maila: ingenieria@fmh.es

■ Orduetgia:
08:00-13:00
14:30-17:30



1999/2000 ikasturtea

ISPILUARI BEGIRA



JOSEBA ANTTON JASO

A.N.T.T. Aholkularitzakoa

- **Aseguru asko egiten al dituzte gazteek?**
 - Guk nahi baino gutxiago. Gehixenbat automobilen aseguruak.
- **Zer aseguraturiko zenuke zure bizitzatik?** - Familia.
- **Zure gorputzeko zein atal aseguraturiko zenuke?**
 - Lepotik gora dauan dana.
- **Bezeroa aholkatu ala konbentzitu?**
 - Bixak eitxia biharrezkua da.
- **Jaso duzun aholkurik onena?**
 - Epe luzerako helburuak izatia baino, egunez egun eitzen dan lana dala garrantzitsuen.
- **Zein futbolariren bernak aseguraturiko zenituzke gustura?** Joseba Etxeberrian hankak guk aseguraturen ditxugu.
- **Zein zine izarri egingo zenioke bizi aseguru bat doan?**
 - Grace Kellyri.
- **Bizi-asegurua ala jubilazio plana?** - Bizi-asegurua.
- **Heriotza al da 'aseguratuta' daukagun gauza bakarra?** - Zoritxarrez bai.
- **Bake prozesuari aseguru egiten ausartuko al zinateke?** - Bai. Gustura eingo nioke gainera.
- **Loteria tokatuz gero, zertan inbertituko zenuke dirua?** - Neria bezelako negozio batian, baina lan gitxio eitekotan.
- **Zein arrazoiengatik izan nahi zenuke famatua?**
 - Famatua izatiak ez dia ilusio gehixegirik eitzen.
- **Iturritik ura beharrea zer nahiko zenuke ateratzea?**
 - Noizian behin ez zan gaizki egongo Whiskya ateratzia.
- **Noren kontzertua ikusiko zenuke gustura?**
 - *Beatles* taldeana.
- **Ametsak gogoratzen al dituzu?** - Batzutan bai.
- **Zure ametsetako bidaia?**
 - Canadara salmoiak arrantzatzeratu.
- **Lanbidea aldatzekotan, zein lanbide aukeraturiko zenuke?**
 - Jendiakin harreman zuzenak ditxuan edozein lanbide.
- **Inoiz egin dizuten oparirik politena?**
 - Opari hori jasotzeke nao, ia emaztiak eitzen dian.
- **Oscar sariak jaso dituzten pelikulak ikusteko asmorik?** - Bai, badakat ikusteko gogua.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGURAK

Kalamua, 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
943 74 18 91

OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

943 20 35 15 • ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

Iban Barrenetxea 26 urteko elgoibartarra da. Disenatzaile grafiko eta ilustratzaile moduan egiten du lan. Baina benetan gustatzen zaiona bere kabuz sortutako ilustrazioak eta komikiak marraztea da. Betidanik izan du marrazteko afizioa edo grina. Beste batzuk ere ohartu dira bere zaletasunaz, makina bat sari irabazi baititu. Iaz, besteak beste, Sestaoko eta Urretxuko ilustrazio lehiaketak irabazi zituen eta Portugaleteko Komiki Lehiaketa entzutetsuan bigarren saria eskuratu zuen. 'La Comictiva', Estatuko komiki argitalpen garrantzitsuenetakoan ere kolaborazioak egin ditu eta publizitate agentzia askotatik deitu diote ilustrazioak egiteko.

IBAN Barrenetxea

“Marrazterakoan ez da estiloaren esklabua izan behar”

– Sari bat irabazi berri duzu, ezta?

– Bai. Zumarraga-Urretxuko 13. Antzerki Asteko kartel lehiaketa irabazi dut. Nire lana beste 45 marrazkiren artean aukeratu zuten eta Antzerki Astea iragarzteko erabiliko dute.

– Marrazkiak ordenagailuz egiten dituzu, aukera handiak ematen al ditu?

– Bai, ordenagailua tresna oso indartsua da eta azkarrago lan egiteko aukera ematen dizu. Azken batean, baliabide asko eta ikusgarriak eskaintzen dituen beste tresna bat da, pintzelak edo arkatzak izan daitezkeen moduan. Baina, jendeak askotan pentsatzen duenaren kontra ez da tresna magikoa. Lan handia egin behar da teknikak ikasteko. Marrazteko abilezia izateaz gain, programak erabiltzen ere jakin behar da.

– Ordenagailuarekin ibiltzeak desabantailarik ere izango du.

– Batez ere berotasuna edo hurbiltasuna galtzen da. Izan ere, norberaren lanarekiko kontaktu fisikoa galtzen da pantaila batekin lan egitean. Azken aldian nire estiloa artifiziala izan ez dadin saiatzen ari naiz. Teknika tradizionalagoak, kolorezko lapitzak eta antzerakoak, berriagoekin nahasten ari naiz. Beste teknikak baztertzen ez dituen bitartean tresna oso egokia izan daiteke ordenagailua eta egin nahi denaren arabera izugarritzko abantailak ditu.

– Zer da ilustrazio bat?

– Ilustrazio bat testuak osatzeko edo konplementatzeko marrazkia izan daiteke. Ilustrazioen helburua, idea bakar bat edo batzuk irudi batean islatzea da.

– Nola lortu duzu ma-

razteko estilo berezia eta pertsonala izatea?

– Gustuko dituzun gauzak batetik eta bestetik hartuz lortzen da norberaren estiloa, baina ez da estiloaren esklabua izan behar. Picasso asko gustatzen zait eta bere lanek eta pentsakerak izan dute eraginik nigan. Berak esaten zuenez, bizitza helmugarik ez daukan bilatze-lana da, bilatzea bera baita helmuga. Gainera, bere-berearen zuen unibertso estetiko sortu zuen, estilo bat. Nire ikutua eransten diet irudiei, ez naiz ikusten dudana jasotzera mugatzen, horretarako argazkilaritza baitago.

– Zein da ilustrazioen eta komikien egoera Euskal Herrian?

– Azkenaldian ordenadorez egiten den diseinu grafikoaren “boom” modukoa dago. Orain dela 5 urte pentsaezinak ziren baliabideak daude edozein kartel edo ilustrazio egiteko. Komikia, berriz, betidanik izan da arte marginala, ez zaio arreta gehiegirik eskaini. Baina horrek badauka bere xarma. Dena dela, edozein arlotan lana topatzea zaila bada, artearekin bizimodua ateratzea are zailagoa da, artelanak ez baitira kontsumo handiko produktuak.

– Gogorra al da BARRENeko Barrak, Birrak eta Barreak komiki tira ateratzea?

– Bai. Oso gogorra. Gainera niretzat txiste bat asmatzea oso zaila da, nire izakera dela-eta umorea sortzea asko kostatzen zait. Antxon Alvarez Kokoe Elkartearen lehendakariak laguntzen dit zeregin honetan eta berak esaten didana irudikatzen dut.



Ezkontza kanpaiak




U daberria heldu berri da, eta uste baino lehen, udak ere harrapatuko gaitu. Bi urtaro hauek izaten dira gehienbat jendeak ezkontzeko aukeratzeko dituenak. Baina, egun handia iristen denerako gauza guztiak prest egon behar izaten dira: arropa, eliza, gonbidatuak, bazkaria... eta prestakuntza horrek buruhauste ugari ekartzen dizkiete ezkongaei eta baita ingurukoei ere. Ezkontzari daukan garrantzia kendu gabe, hemen aurkezten dizuegun gehigarria laster ezkontzeko asmoa duten bikoteentzat erreferentzia izatea nahi genuke.





*Euskal arkitekturako eraikin nagusienetakoan,
ezkontzak berezia izan behar duelako*



*XVJ. mendeko jauregi gotikoa paregabeko paisaia batean,
gaur egungo joerei erreparatzen dien kalitatezko
euskal sukalde klasikoaz gozatzeko aukera ematen duena.*



*200 lagunentzako jantokia terrazarekin,
ospakizun handietarako aproposa.
Bestetik, bi jantoki: 80 lagunentzat bata,
eta bestea erretrorbatua, 15 lagunentzat.*



Ezkonberrientzako opariak

Bi pertsonak ezkontzea erabakitzen dutenean, bizitza berri bati esaten diote baietz. Elkarrekin hasiko duten bizimodua hutsetik abiatuz hasiko dute, eta poliki-poliki, etxea beharrezko gauzez betetzen joatea komeni da. Oparien zerrendak berebiziko garrantzia du zeregin horretan. Bikote bakoitzak, bere beharren eta gustuen arabera, opari-zerrenda praktikoa, dotorea, klasikoa edo modernoa aukeratu du. Bide batez, gonbidatuek eta familiakoek zer oparitu ez badakite, opari-zerrendan oinarritzeko aukera izango dute. Opariok besteak beste, luxuz-



ko ontziteriak, sukaldarako elektragailuak, objektu edo altzari dekoratiboak, musika ekipoak edo bidaia zoragarriak izan daitezke. Beste era bateko opari pertsonalagoak ere ba-

daude. Ohizkoa den eraztunaz gain, bitxiak edo erlojuak adibidez. Diamante bat oparitzuz gero, egunik zoragarriena gogoan edukiko dugu luzaroan, diamanteak betirako direla esaten baita. Baina ezkonberriek asko estimatuko dituzten erregalu praktikoagoak ere badaude, ezteibidaiarako egokiak izan daitezkeen maletak, bikotearen oheko edredoa, etxeko lanak egiteko diseinuzko elektratresnak etab. Dena dela, zer oparitu ez dakienak beti izango du dirua emateko aukera, opariak aukeratzeak ematen dituen buruhausteak ahaztuz.



Gurean aurkituko duzu ezkongaiantzako oparirik egokiena

Beti-argi



Aranburu

GORRANO

LEIZABE





Santa Klara, 5 · ZARAUZ
Tel. 943 13 12 43 - 13 40 95



*280 pertsonarentzako
jantokia eta landare-
tza ederreko jardina
duen jatetxe ospetsua.
Lunch-etarako
toki paregabea.
Jantokira sarrera
zuzena duen lurraz-
piko
parking zabala.
45 eta 15 pertsona-
rentzako
bi jangela pribatu
ere baditu.*



Ezkontza egunean inciz baino ederrago



Emakume bati ezkontzako trajea aukeratu behar duen uea iristen zaionean, zerbait berezia, ezberdina eta bere izaerarekin bat datorrena bilatu ohi du. Bere helburua arropa horren barruan eroso eta seguru sentitzea nahi du, ez mozorrotuta balego bezala. Emaztegaien arropetan espezializatutako dendek emakume guztien gustuak eta estiloak asetzeko adina traje izaten dituzte. Emakume bakoitzarentzat traje mota bat dago. "Imperio" erako gerria duten soinekoak, emakume erromantikoentzat bereziki diseinatutakoak, era Isabeldarra gogoratzen dutenak, edo trajeari esangura berezia ematen dioten diseinuak.

Ezkontza zibila baldin bada, andregaiak albo batera utzi ohi ditu printsesa gisa jatzeko asmoak, baina sekula ez du bere dotorezia galtzen. Protagonistak direla adierazi nahi duten arren diseinu errazekin konformatzen dira, ahal izanez gero inolako belorik edo bolumenik gabe.



Mende amaierarako diseinatzaileek ehun naturalen aldeko apostua egin dute. Danais noviaseko Inesek adierazi digunez, zeta naturala, rasoia eta enkajeak dira nagusi eta berrikuntza gisa zetazko pikeak agertu dira. Beti ere emaztegaiaren gustuei eta izaerari erreparatuz beraien gidari izatea da profesionalen helburua. Gehienek gona eta konpinodun trajeak eskatzen dituzte eta baita tirante-

dunak ere. Baina badira mangadun soinekoak nahiago dituztenak. Lehengo beloa ez dute gaur egun askok erabiltzen baina Inesek esan digunez, beraiek mantilak jartzten dizkiete emaztegaiei peineta txikiekin eta horrela, velo motzaren itxurra hartzen dute. Bestalde lorak ere erabiltzen dituzte burua apaintzeko, ehun naturalez eginak edota soinekoaren tela berarekin burututakoak. Erabat zuriak diren soinkoek indarra galdu dute eta diseinatzaile askok marfil kolorearen aldeko apostu garbia egin du. Zapatak aukeratzeko orduan ezkontza egingo den urte sasoa hartuko dugu kontutan. Udararako egokienak sandaliak dira. Askok egiten dute ordea beste zapata mota baten aukera eta hauek soinekoaren tela berarekin forratu ohi dituzte.

Ezkontza egunean emaztegai guztiek ahalik eta ederren joan nahi izaten dute eta adituak horretan saiatzen dira, baita gehienetan lortu ere.

 **VIAJES EROSKI**
BIDAIAK
Toribio Etxebarria, 3 behea · EIBAR · Tel. 943 20 15 69 · Faxa. 943 20 40 67

Adituak gara honetan!

- ITSAS-BIDAIK**
- IBILALDIA ETA EGONALDIA HONDARTZAN**
- HONDARTZA EXOTIKOAK**
- NEURRIRA EGINDAKO BIDAIK**

6 hilabetera ordain dezakezu inolako interesik gabe

Deitu eta aholkatuko zaitugu!



Mende berriko senargia

Ezkontzako gonbidatu gehienek emaztegaiari begiratu ohi diote. Baina, piskanaka, gizonezkoaren trajea denen ahotan izaten da egun horretan. Beraz, emakumeari bezalaxe, gizonezkoari ere apaina eta dotorea izatea eskatzen zaio eta, ahal izanez gero, topikoekin apurtzea, ez dezaten gero esan nobio guztiak berdin jantzita jotzen direnik.

Egia da gizonezko gehienek estilo klasikoa jarraitzen dutela, norberak bere ikutu propioa emanez, noski. Ezkontza goizez baldin bada, txakea gomendatzen dute adituek; arratsalderako, berriz, etiketa-jantzia. Txakeak lebita izango du, beltza edo gris marengoa, eta ausartagoentzat, uda garairako, gris argia edo beigea. Aurten luzeagoak izango dira eta botoi gehiago edukiko dituzte. Bestalde, prakak beltzak edo arraiadunak izango dira. Txalekoa ez da ahaztu behar. Klasikoena beltza da baina azken aldian fantasiatzakoak ere asko erabiltzen dituzte.



Konplementuei dagokienez, gaur egun ez da pajaritarik eramaten. Txalekoarekin bat datorren korbata izaten da ohizkoena eta badira egindako korbatakin nahi dituztenak ere. Txaketako poltsikoan eraman ohi den zapia modaz kanpo dago orain. Zapatak klasikoak, ingeles estilokoak, eta noski, beltzak.

Fraka, arratsalde partean edo gaeuz ospatzen diren ezteietarako da egokia. Lebita eta prakak beltzak di-

ra. Txalekoa eta alkandora, berriz, zuriak. Konplementu gisa korbata jantzi daiteke.

Mende berriaren atarian gaudela-eta, gizonezkoen trajeak aldatzen ari dira. Lehengo amerikana alde batera lagata, egun lebitaren aldeko apostua egiten dute senargaiek. Azken modarekin bat etorri nahi duen nobioak korbata grisa eraman beharko du, edota txalekoarekin ondo ematen duen korbatina. Txalekoa ere beharrezkoa da eta fantasiatzkoa edo trajearen ehun berarekin egina behar du izan.

Senargai askok trajea denda askotako arropekin osatzen badute ere, egokiagoa da lan guztia profesional on baten esku uztea. Aditua den neurrian, norberaren altuerara eta estilora egokitutako trajea prestatuko du. Bere helburua senargaiari nahi duena ematea izango da, baina beti ere armoniaz konbinatuta, askorentzat bizitzako egunik ederrena den horretan ahalik eta dotoreen egoteko.

Utzi zure ezkontza-gonbidapenak benetako profesionalen eskuetan



Arrillaga
Inprimategia

DISEINUA - FOTOKONPOSIZIOA - ETIKETAK, KARPETAK ETA KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK - TIPOGRAFIA - OFFSET

Trenbide, 13 behea • Tel.: 943 74 01 87 • Faxa: 943 74 27 40



DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Olaso industrialdea, 27 • Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78 • ELGOIBAR



muñumer
inprimategia

TIPOGRAFIAN eta OFFSETean ERA GUZTIETAKO INPRIMAKIAK

Santa Klara, 28 behea • Tel.: 943 74 42 92 • Faxa: 943 74 02 40



NAVA S.L.
Inprimategia

- x DISEINU GRAFIKOA
- x PUBLIZITATEA
- x BISITA TXARTELAK
- x KARTELAK

Era guztietako lanak

Santa Ana, 44 • Tel./Faxa: 943 74 44 51



VIAJES
ECUADOR

Errosario, 4

Tel. 943 74 45 68

Faxa. 943 74 46 05



**Ezkonberrientzako opariak
eta ordainketa erraztazunak**



ostarku

PROFESIONALAK

Ez itxaron gehiago!

Enkarga

ezazu

dagoeneko

zure ezkontza-

ko erreportajea.



ARGAZKI-ERREPORTAJEAK

**KALITATE DIGITALA DUTEN
BIDEO ERREPORTAJEAK**

Santa Ana, 5 - ELGOIBAR - Tel. 943 74 06 46



SALEGI



Jantoki berrituak

50, 100, 200 eta 250 pertsonarentzako jantokiak

Menu pertsonalizatuak

Hokitelerako eta argazkietarako jardun aproposa

Parking-a



Santuario ondoan · Tel. 943 19 90 04 / 19 91 81 · ITZIAR



ARANTZAZU

Edergintza

San Inazio, 4 · Tel: 943 74 27 25

Kide
ILEAPAINDEGIA

San Frantzisko, 40 - 3B
Tel. 943 74 00 69

ELENA

ileapaindegia
depilazio elektrikoa

San Frantzisko, 49-1 · Tel: 943 74 11 89

Maria Urizar

ileapaindegia
Solariuma

Errosario, 9-1 · Tel. 943 74 44 89

Garbiñe

EDERGINTZA

P.M. Urruzuno, 27 - Tel: 943 74 31 32



Sidney
ILEAPAINDEGIA

San Frantzisko, 26-1 · Tel: 943 74 09

IDAMA

ILEAPAINDEGIA

Santa Ana, 7 - Tel: 943 74 40 26

Egunik ederrena
profesionalen esku!!

Tximak
ILEAPAINDEGIA
solariuma

Kalamua, 2 · Tel: 943 74 43 57

ITZALA
Edergintza

San Frantzisko, 49 · 1 esk.
Tel: 943 74 43 03

JOSE ANTONIO
ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30 · Tel: 943 74 14

 **XABIER**
ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 13 · Tel: 943 74 19 97

LASA JATETXEA



Ezkontzaren unea sekula ahaz ez dezazun eta zure bizitzako oroigarri ahaztezina izan dadin egiten dugulan **LASA** jate-txean. Jatearekin plazerra lortzeko lantzen ditugu jakirik goxo eta preziatuenak.

Maitasunean eta alaitasunean gauzatutako ezkontza batean ezin falta bazkari bikain batek sortzen duen plazerra.

LASA jate-txean badakigu zer den hori. Erdi aroko

“Ozaeta” jauregiaren maisutasunaren babespean igaroko dituzu zure bizitzako unerik alaienak.

CORTE BLANCO

Taila handiak,
64ra arte.
Luzera bereziak.

SENARGAIK, AITABITXIAK, AMABITXIAK eta GONBIDATUAK

GIPUZKOAN LEHENAK GARA

GIZONEZKOA

Triunfo, 3
Donostia

EMAKUMEZKOA

San Martin, 50
Donostia

TALLISIMA

Easo, 3
Donostia

Tel. 943 46 40 91



viajes
marsans

MARSANS BIDAIK

ZURE BIZITZAKO BIDAIA ZAIN DAUKAZU

TXARTEL HAU BETE ETA BIDLIZ GERO, OPARI BEREZI BATEN
ZOKKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO DUZU.

HELBIDEA:

MARSANS BIDAIK

San Agustin, 5
20600 EIBAR
Tel: 943 20 76 88
Faxa: 943 12 09 54

Zorionak eta zorte on!



IZENA:

ABIZENAK:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

EZKONTZA DATA:



Eztei-bidaia, ezkontzaren osteko lasaitasuna

Euskal Herrian ezkontza ugari egiten dira urtero eta bikote gehienek daukaten maila ekonomikoa edukita ere, eztei bidaia egiteko erabakia hartu ohi dute. Aurrekontua 200.000 pezeta ingurukoa da eta astebete edo bi aste inguru irauten du. Gehienek Karibea aukeratzen dute baina badira hiri handiak nahiago dituzten bikoteak. Besteak beste Parisera, Veneziara edo Europako beste hainbat hiriburutara jotzen dute. Ausartenek Ekialde Urruneko herrialdeak edo Afrikara joateko erabakia hartzen dute. Gauza asko ikusi nahi dutenek, berriz, itsasuntziz egiten dute bidaia. Diru askorik ez dutenentzat Kanariar edo Balear irlak izan daitezke egokiak. Hona hemen eztei-bidaian nora joan ez dakitenentzat zenbait ideia:

Margarita irla:

Eguraldi beroa, historia apur bat eta jende jatorra. Opor zoragarriak igarotzeko osagarri bereziak dauzka Margarita irlak. Karibeko benetako paradisa da eta iragan kolonialari, eguzkia, musika eta erromantizismoa gehituz gero eztei-bidai ezin hobea igaroko dute bertara hurbiltzen direnek.

Erroma:

Sukaldaritza italiarraz eta monumentu esanguratsuez gozatzeaz gain, hiri moderno batean mugitzeko aukera ematen du Italiako hiriburuak. Barrokotik erromantizismora salto eginez ezkonberriek museo-hiri honetako kaleetan paseatuko dute Italiako aire latinoak dastatuz.

Bali irla:

Eztei-bidairako Bali irla autatzen dutenek, bertako ohiturari jarraituz berriz ezkontzeko aukera izango dute. Dantza, lorak eta errito majikoak baten dituen zeremonia hau, baliko eguraldiarekin eta bertako fruitu goxoe-kin batuz klima tropikalean murgilduko dira ezkonberriak.

Mallorka:

Balear irlen artean handiena da. Eguzkiaren eta lasaitasunaren irla, paisaia ikusgarriak dituena. Uretako kirolak gustuko dituzten ezkonberriek surfa, igeriketa edota arrantza deportiboa egiteko aukera izango dute Mallorkan.

Beraz, ezkontzeko asmoa duten bikoteei lehenbailehen bidai agentzietara joateko gomendioa luzatu nahi diegu, izan ere, askotan prezioa bereziak egiten dituzte honelako kasuetan. Aukeratzen duten bidaia aukeratuta ongi pasatuko dutela uste dugu.



Loiola Hiribidea, 24 · 20730 LOIOLA-AZPEITIA
Tel: 943 81 56 08 · Faxa: 943 15 03 62

foto | azkue


San Bartolome, 26 • Tel: 943 74 08 48



- ▶ 300 LAGUNENTZAKO JANTOKIA
- ▶ ATARI HANDIA LORATEGIAREKIN
- ▶ APARKALEKUA
- ▶ NEURRIRA EGINDAKO MENUAK

Galde iezaguzu!

Arrate auzoa, z/g. · EIBAR
Tel: 943 20 27 27 · Faxa: 943 20 89 91



VIAJES **BILBAO EXPRESS** BIDAIAK

Foruen enparantza, 3

Tel: 943 74 39 12 · Faxa: 943 74 44 24

KOSTA URDINA · ITALIA · TUNEZ · BALEAR IRLAK

Bartzelona - Marsella - Genova

Napoles - Palermo - Tunez

Palma - Bartzelona

Maitzaren 21etik azaroaren 5era,
Bartzelonatik ostiralero irteerak.
175.000pta.tik aurrera pertsonako.



DADAIS NOVIAS

Kolekziorik onenak esklusiban.

ezkongaiak **99**

Soinekoak eta osagarriak:

Ezkongaiarentzat * Amabitxiarentzat

*** Jaunartzeetarako**

Diseinua, dotoretasuna eta eleganzia prezio-rik onenean

Ezkongaiarentzat bere soinekoa bitxirik preziatuena da


Buenos Aires, 7 · 48001 BILBO · Tel: 94 423 15 86

Corte Inglesetik 150 metrotara



JATETXEA

Loiolako Inazio
Hiribidea, 47
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 16
Faxa: 943 15 16 18



Detaille txikiak, menua bezain inportanteak



Elizkizunaren ostean, bazkaria edo afaria izan ohi da gehienetan. Batzuek, jator-
duaren aurretik ongi-etorri koktela egiten dute. Koktela ordu erdi ingurukoa izaten da eta kanape txikiak zerbitzatzen dituzte. Jatetxea ongi aukeratu behar da, ezkontza egin den lekutik gertu. Kontuan izan behar da ezkontzan zenbat gonbidatu egongo diren eta, beraz, zenbat espazio beharko den. Ezin da espazio txikian jende asko sartu; gonbidatu bakoitzak bi metro karratu behar ditu gutxienez.

Gonbidatuak non kokatu ere ezkontideen erabakia da. Horretarako, sentsibilitatea eta psikologia apur bat behar dira mahaietan elkar ezagutzen duten pertsonak edo interes beretsuak dituztenak jartzeko.

Zenbait jatetxetan, ezkontzako eguna iritsi baino lehen, menua probatzeko aukera ematen dute. Horrela, ezkongaiak



gonbidatuek jango dutena egokia dela probatu ahal izango dute. Bazkaria edo afaria goxoa bada, ezkonberriak ezezik gonbidatuak ere pozik geldituko dira.

Ongi bazkaldu edo afaldu ondoren, tartaren eta txanpainaren ordua iritsiko da. Tartaren ohitura aspaldikoa da. Ertaroan, Ingalaterran, gonbidatuek tartak eramaten zituzten eta ezkongaiak tartei muxu eman ostean, azukrea botatzen zieten gainetik eta gonbidatuen artean banatu. Gaur egun tartaren ohiturak zutik dirau, baina ezkontideek tartari beharrean, elkarri musu ematen diote, eta ondoren, tarta zati-tu eta gonbidatuei banatzen diete. Txanpainarekin topa egitea ere oso ohizkoa da ezkontzetan. Baina jende askok ez daki kopek ez dutela sekula elkar ikutu behar, itxura baino ez da egin behar.

Ongi jan eta edan ostean, dantzarako ordua helduko da Digestioa egiteko oso egokia izan ohi da eta baita eguna giro alaian amaitzeko ere.



**Zure etxea
apaintzeko
aholkuak
emango
dizkizugu.
Jantzietan,
udaberri-udako
kolekzioak
zure esku.**

Fermin Calbeton, 16 - 18 · Tel: 943 20 80 06 · EIBAR

Hamaika aholku ezkongaientsat



Makilajea eta orrazkera

- ❖ Disdirarik gabeko makilaje transparentea eta argia da egokiena.
- ❖ Begiak tonu neutroekin margotu. Arkatz natural batekin delineatu. Marroia edo grisa dira gomendagarrienak, baina beltzarana izanez gero, beltzez margotzea egokia da. Ondoren, betileei bolumena emateko edo luzatzeko maskara erabili.
- ❖ Ilea batuta. Moñoa ez da oso tirantea edo formala izan behar, naturala baizik.
Ilea erabat soltea eramatea ez da gomendagarria.
- ❖ Ez erabili ezpainetan oso kolore gorriarik ezta disdiratsuegiak direnak ere.
Arrosa suabea edo haragi kolorea dira egokienak.
- ❖ Azazkalak ere tonu argietan margotu: arrosaz, beigez edo zuriz.

Bitxikeria bat:

❖ Bulegotik atera ezin den horietakoa baldin bazara eta zure ezkontza gero eta gertuago badago, Internetera jotzea baino ez duzu: <http://www.nuvisystem.es>. helbidean ezkontza prestatzen lagunduko dizuten argibide ugari aurkituko dituzu. Besteak beste, elizak,



emaztegaiarentzako arropa, bitxidendak, inprentak, musika, argazkiak, bidaia agentziak... Uste baino errazagoa izango da zure ezkontza bulegotik bertatik azkar eta ongi antolatzea.

Jazkera

- ❖ Ezkontzarako arropetan zenbat diru gastatu nahi duzuen aurrez ongi pentsatu. Ondoren, aurrekontuarekin bat datozen dendetara jo, denbora asko aurreztuko duzue honela.
- ❖ Ezkontzako egunean familiariko bitxiak edo konplementuak eraman behar badituzue, jostuna hasieratik jakinaren gainean egon beharko da. Trajea aukeratzeko orduan oso erabakiorra izan daiteke.
- ❖ Ez dago moda jarraitu beharrik. Ezkongaien trajeak garaiz kanpokoak izan daitezke.
- ❖ Arropa aukeratzera zoaztean ez eraman laguntzaile asko inguruan. Ama edo oso gertukoa den norbait zuekin joanez gero nahikoa da.
- ❖ Utz ezazue profesionalen eskuetan zure trajea egiteko lana. Bere arrakasta ezkontza egunean zuena ere izango da.



ste honetako
erretratu zaharra
**Jose Mari
Etxanizek** ekarri
digu. 1924ko
apirilaren 24an
dago aterata, Aita
Agirre zenari

Igoibartarrek egin zioten menaldi egunean. Txinako robintzia bateko gotzaina izan en urte askoan eta bere roimenez plaka bat jarri zuten ere jaiotetxean, San Bartolome aleko 14. zenbakian. Hilaren 4an plaka hori jarri zutela 75. rte beteko dira.

Argazkiaren goian eta zkerraldean, **Aita Agirre** zena ikus ezakegu. Plaka jarri zuten alkoian, berriz, **Antonio Arrillaga** gertzen da, garai hartan Elgoibarko lkatea zena. Argazkian ikusten enez, herritar asko bildu zen menaldian parte hartzeko. Ondoko alkoiak jendez gainezka ikustea esterik ez dago ospakizuna urbiletik jarraitu nahi izan utela antzemateko.



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



karkizano

San Frantzisko, 12-14 - Tel. 943 74 05 49



Udal Kirol Patronatuak igerilekuko teilatua berrituko du aurten, besteak beste

1999ko aurrekontua 76 milioikoa da eta 32 milioi autofinantziazioetik lortuko dituzte

Martxoaren 25eko ez ohizko plenoan onartu zen moduan, guztira 76.800.000 pezetako aurrekontua du Udal Kirol Patronatuak 1999 urterako. Udalak 41.100.000 pezeta jarri ditu eta gainontzekoa Patronatuak autofinantziazioaren bidez lortuko du. Ramon Mujika Udal Kirol Patronatuko zuzendariak adierazi digunez, "1996an Udalak Kiroldegiaren ardur hartu zuenetik, lortu ditugun diru sarrerak handituz joan dira urtez urte, baina portzentaiak mantendu egin ditugu. Izan ere, autofinantziazioari esker bildu dugun diru kopurua igo egin da eta instalazio askotan berrikuntzak egiteko aukera izan dugu hiru urteota". 1999ko asmoen artean igerilekuko teilatua berritzea aipatu digu Mujikak. "Injelan enpresakoek egin zuten proiektuaren azterketa eta 6.580.000 pezetako gastuak aurrikusi zituzten. Itokinak kentzeko igerilekuko teilatu guztia aldatuko dugu. Es-



Abuztuan egingo dute seguruenek Kiroldegiko teilatuaren aldatzea.

talki berriak, altzairuzko bi xaflen erdian material isolatzailea bat izango du. Honez gain, ubidea edo erretena zikinkeriaz ez betetzeko hobekuntzak ere egingo ditugu". Lanen adjudikazioari buruz Mujikak azaldu digunez, "5 milioitik gorako lanak zozketa publiko bidez adjudikatu behar dira, baina inork ez zion gure deialdiari erantzun. Beraz, beste bi enpresekin kontaktuan jarri gara eta eskaintzarik

hoberena Batzorde Errekto-reak aukeratuko du. Berrikuntza lanak abuztuan egingo dira, hilabete horretan igerilekua ez baitugu zabaltzen".

Beste zenbait lan

Bestalde, bazkideen txartelak eta abonua kontrolatzeko sistema informatikoa jartzeko 1.500.000 pezeta gastatu ditu Patronatuak. Mintxetako aldageletako ur beroaren instalazioa aldatzeak, berriz, 1.000.000 pezetako kostua izango du, lehen zegoena izozte batek

izorratu baitzuen.

Mujikak esan digunez, "Patronatuak 32 milioiko diru sarrerak modu honetan lortzea espero dugu: 11 milioi bazkideen abonuetatik, 14 milioi Kiroldegiko instalazioen alokairuaren bidez, 4 milioi Mintxetaren alokairuarengatik eta gainontzekoa Ikastolako frontoiari, Tennis pistaren alokairuari eta publizitate estatikoari esker lortzeko asmoa dugu".

Iñigo Lariz txirrindulariak Azpeitiko Sari Nagusia irabazi du

Iñigo Lariz elgoibartar txirrindulari gazteak Azpeitiko Sari Nagusia irabazi zuen pasa den larunbatean, hilak 10. Lehen eta bigarren urteko kadete mailako txirrindularientzako lasterketa zen eta 169 partehartzailek neurtu zituzten indarrak. Iñigok, 56 kilometro egin ostean, azken bi kilometroetan tropele-

tik alde egin eta lehen postuan zeharkatu zuen helmuga, bigarren sailkatuari 2 segundu eskaseko aldea ateraz.



Eskuman, Iñigo Lariz elgoibartar gaztea saria jaso ostean.

ESKOLA KIROLAK

AGENDA (Apirilak 17, 17. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA (Mintxetan)

- Benjamin mutilak ■
- 10:00 Pilar A - Ikastola A
- 10:30 Herri Eskola A - Ikastola C
- 11:00 Pilar B - Mendaro A
- 11:30 Herri Eskola B - Ikastola B

- Benjamin neskak ■
- 12:00 Ikastola B - Ikastola A
- 12:30 Ikastola C - Pilar B

SASKIBALOA (Ikastolan)

- Infantil neskak ■
- 10:00 Insti - San Viator
- 11:00 Pilar B - Ikastola E
- 11:45 Pilar A - Ikastola A
- 13:15 Ikastola B - Ikastola C
- Infantil mutilak ■
- 12:30 Pilar A - Insti

■ Alebin mutilak ■

- 9:00 Herri Eskola - Ikastola B
- 9:45 Ikastola A - Pilar B
- 10:30 Mendaro B - Ikastola A
- 11:15 Mendaro A - Pilar B

■ Alebin neskak ■

- 12:00 Pilar A - Pilar B
- 12:45 Ikastola A - Ikastola C

ESKUBALOA (Kiroldegian)

FASE PROBINTZIALA

- Infantil mutilak ■
- 10:00 Ikastola - Orioko
- 11:00 Pilar B - Moguel Isasi
- Infantil neskak ■
- 12:00 Ikastola D - Telleri

Unai Oñederrak Euskadiko Tiro Pitxoi Txapelketa irabazi du

Javier Uzuriagak marka ikusgarria egin zuen Tiro Pitxoi Artifizialean

Euskadiko Tiro Pitxoi Txapelketa jokatu zen larunbatean, hilak 10, Arrateko tiratokian eta Unai Oñederra elgoibartar gazteak txapelketa irabazi zuen. Euskadiko bazter guztietatik etorritako 70 partaide nor baino nor aritu ziren Arraten. Unairen hurrengo erronka Munduko Txapelketa izango da ekainaren 1etik 5era. Italian jokatu da eta tiro pitxoi artifizial espezialitatean parte hartuko du. Gogoratu behar da joan zen urtean Espainiako Txapelketa irabazi zuela modalitate honetan.



Goian Unai Oñederra. eta behean, Javier Uzuriaga.



Uzuriaga, Pitxoi Artifizialean errege

Bestalde, Javier Uzuriaga sanmigeldarrak marka bikaina egin zuen martxoaren 28an Euskadiko Tiro Pitxoi Artifizial Txapelketan, 46 tirotik 46 helize jo zituen eta. Ei-

barko Arrate auzoan jokatu zen eta 54 partehartzaile izan ziren guztira. Javierrek ez zuen irabazteko asmoarekin lehiatu, izan ere 3 txandatan edo egunetan banatzen da txapelketa eta berak azkeneko egunean bakarrik parte hartu zuen. Azken sailkapena, hiru egunetik bi txanda onenetan lortutako emaitzak batuz egiten da. Dena dela, bikain aritu zen, "12 helize jaurtitzen ditxue lehenengo, eta nik, 12txik, denak bota nitxun. Hortik aurrera tirua azertatzen ez dabana kalera doia. Azkeneko, Santanderko tira-tzaile bat eta neu genau ginar, harek 45garren tirua fallau zaban eta nik 46txik 46 bota nitxun". Javierrek esan digunez, "emozio asko zauzala nabari zan eta ikusliek asko disfrutau zaben, baina guk nekauta eta gosiak amorratzen amaitxu gendun".

EMAITZAK

Futbola

Haundi 0 - Bermeo 1

Futbitoa

Peñaskos 4 - P.S.K 4

Lojantzi 7 - Aizkorak Mendibil 1

Areto Futbola

Zur Ta Lur 1 - Laskurain Tolosa 2 (1. maila)

Zur Ta Lur 2 - Adarra 2 (Auton.)

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalarierregularrena 98/99

JOKALARIAPUNTUAK

1- Aitor Trebiño	32
2- Ibon Muguruza	32
3- Madina	29
4- Eneko	28
5- Díaz	29
6- Txasio	25
7- G. Lazarobaster	24
8- Gurrutxaga	23
9- Iker Leonardo	22
10- Caro	20
11- Beitia	18
12- Elkoro	15
13- Loren	13
14- Igor	11
15- G. Leonardo	10
16- Portu	1

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 17

17:00 Elgoibar - Antoniano (1. erreg.)

Igandea, 18

12:00 Elgoibar - Amaraberri (1. jub.)

17:00 Elgoibar - Real Sociedad (Inf.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 17

16:00 Pagoaga Elg. - Goierrri (Kad. mut.)

17:30 Unceta Elg. - Aloña Mendi (Jub. nes.)

Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 18

Kopako partiduak

11:00 Berrogei Duro - Kunta Kinte

12:00 Aizkorak Mendibil - Aide Globun

● Jubenil mailako nesken eskubaloi taldeak Espainiako Txapelketa jokatu du Tarragonan

Unceta eskubaloi taldeak, nesken jubenil mailakoak, Espainiako Txapelketa jokatu du asteburuan Tarragonan. Espainiako Txapelketa estatuko sei sektoretan jokatu da eta Uncetakoek Tarragonako Ascó herrian izango dituzte partiduak. Sektore bakoitzean 4 talde arituko dira lehian. Honako hauek dira elgoibartarren hiru aurka-

riak: Ferrobis Mislata Valentziako txapelketa bigarren sailkatuak, B.M. Ascó Kataluniako talde txapelduna eta Fuengirola, Andaluziako txapeldunordeak. Gogoratu behar da elgoibartarrak Euskadiko Txapelketan hirugarrenak izan ziren. Txapelketak iraungo dituen hiru egunetan Salouko hotel batean egongo dira kontzentratuak.

● Haurrentzako igeriketa ikastaroak Kiroldegian

Udal Kirol Patronatuak 3 urtetik gorako haurrei zuzenduriko igeriketa ikastaroak antolatu ditu. Ikastaroak apirilaren 28an hasiko dira Olaizaga kiroldegian. Klaseak arratsaldetan izango dira eta izena emateko epea apirilaren 22an bukatzen da. Interesatuak Kiroldegian eman dezakete izena (943 74 44 15).



RI

2L

Radiation and go

Astearte gau batean Bilboko Kafe Antzokira hurbiltzea bidezkoa dela deritzot, beti ere 'ezustearen faktorea' kontuan hartzen badugu. **BLONDE REDHEAD** izenaren atzean ezkutatzeko den hirukoteak ederki bideratu zuten 50 bat tipori eskainitako kontzertua. 21:00etan hastekoa zen kontzertua piska bat atzeratzea erabaki zuten (10 lagun inguru geunden). 22:00ak inguruan hasi ziren jotzen, izugarritzko soinu onarekin. Aurrez, beraien abesti bakar bat nuen entzuna. Ia ordubete iraun zuten kontzertua laburra baina bikaina izan zen. Bi anaia italiar eta emakume japoniar batek osatzen dute taldea eta bi kitarra eta bateria batekin sorrarazi zituzten sentsazioak ikusirik, izen handiagoko taldeen parean egoteko adina kalitate dutela argi geratu zen.

Rock gordina edo Pop bortitzaren artean dagoen musika egiten duen talde honek ederki asetu gintuen. Erritmoa ardatz nagusizat harturik, *Shellac*, *Uzeda* edo *Sonic Youth* taldeen antzerako soinuak sortu zituzten. Erritmo aldakorrek eskaintzeko inolako arazorik ez zuten izan, eta izugarritzko sendotasuna eta erraztasuna dutela agerian utzi zuten. *Touch and go* zigiluaren soinua ote?

Kontzertua bukatu ostean, eskerrak eman eta ikusleok tarta bat jatera gonbidatu gintuzten, detaile polita benetan. Materiala salgai ere jarri zuten eta zerbait erosiko ez nuen ba...

Iban Urizar



Urruzuno Literatur Taldea

Literatur zaletasunak batzen dituen gazteen txokoa

Urruzuno Literatur Taldea, literatura gustuko zuten sei elgoibartar gaztek sortu zuten 1998ko ekainean. Elgoibarko Izarra Elkarteak literatur gaiak lantzeko hutsune bat zegoela-eta, taldea sortzea erabaki zuten. Literatura-

ren inguruan mugitzen ziren gazte batzuekin kontaktuan jarri eta Pedro Miguel Urruzuno idazle elgoibartarra hil zela 75. urteurrena betetzen zenez, taldea idazle eta apaiz izandakoaren izen beraz bataiatu zuten.

Gaur egun honako sei gazteok osatzen dute taldea: Mikel Artola, Jon Eugi, Jon Garate, Jasone Osoro, Iñigo Otaño eta Unai Villena. Esan digutenez, talde irekia da eta literaturzalea den edonork du taldeko kide izan eta astero egiten dituzten bileretan parte hartzeko aukera. Bertan, bakoitzak egindako lanak komentatzen, elkar ezagutzen, liburuei buruz hitz egiten edo literaturarekin zerikusia duten ikastaroak, hitzaldiak edo antzerako ekitaldiak prestatzen dituzte.

Hamaika Litera

Hamaika Litera literatur aldizkaria da Urruzuno Literatur Taldearen lanaren erakusle nagusia. Otsailean, **BARREN** aldizkariarekin batera, 4.000 ale banatu zituzten eta urtaro bakoitzean ale berri bat kalertzeko asmoa dute.

Hurrengo aleak eskuratzeko harpidedun egin beharko da. **BARREN**era edo Elgoibarko Izarrara deituz egin daitezke harpidetzak (943 74 41 12/943 74 16 26). Taldekoez araberak, "literaturaren inguruan zegoen hutsunea ikusita sortu genuen *Hamaika Litera*, herritarren literatur sorkuntza Elgoibarren ezagutarazteko. Hari beretik, idazten jarraitzeko motibazioa behar genuen, eta gure literatur lanak kanporatzeko esparru baten beharraz ohartu ginen. Beraz, literatur aldizkari bat sortzea gure nahiak betetzeko biderik egokiena zela pentsatu genuen. Inoren literaturzaletasuna bat-batean piztuko ez dugula badakigun arren, gure helburua Elgoibarren mugimendu literario txiki bat sortzea zen". *Hamaika Litera* izenak esanahi konkreturik ez daukala esan digute, "bi

hitzok dituzten esanahi anitzekin jokatzeko gure asmoa, hitz anbiguoak baitira eta gainera estetikoak da, belarrira ongi ematen du".

Hamaika Litera aldizkariak komunikabideetan ohiartzun handia izan duela aipatu digute, "herrian baino gehiago, herrietik kanpoko komunikabideetan hitz egin dute aldizkariari buruz. Gainera, gehiegi puztu dutela iruditzen zaigu, agian era honetako beste produktu gutxi



Gaur egun sei kide daude Urruzuno Literatur Taldean, baina nahi duen guztiak har dezake parte.

daudelako edo proiektu bitxia delako piztu da interes hau".

Etorkizuneko erronkak

Etorkizunerako literaturarekin zerikusia duten zenbait ekintza pentsatzen dabilta. "Ekintza batzuk kanpotik ekarritako jendearekin egingo ditugu, gure nahia hilean behin ekitaldiren bat antolatzea da". Martxoaren 23an, Liburuaren Egunean, adibidez, Asier Serrano abeslari eta poetak literatura uztartuko dituen emanaldia emango du. Bestalde, aurrerago, Elgoibarko elkarteekin elkarlanean zenbait ekintza antolatzea gustuko litzaiekeela adierazi digute. "Honetaz gain, Literatur Astea prestatzen gabiltza maiatzerako; hitzaldiak, erakusketak etab. izango dira".

AiNhoa GALARRAGA

FISIOTERAPIA



UNIBERTSITATEAK

NOTA

Alcala	7,63
Bartzelonako autonomia:	
- Manresa	6,20
- Sant Cugat	6,55
Cadiz	7,24
Toledo	8,01
Madrilgo Konplutensea	7,99
A Coruña	7,83
Extremadura	7,61
Granada	8,11
La Laguna	7,60
Las Palmas	8,51
Malaga	7,57
Elche	7,36
Murtzia	7,32
Oviedo	7,92
Alcorcon	7,36
Reus	6,88
Salamanka	7,87
Sevilla	7,65
Valentzia	7,44
Valladolid	7,63
Vigo	7,61
Zaragoza	7,94

1 - Nolatan erabaki zenuen Fisioterapia ikastea?

- Batxilergoa osasun zientzien arloan egin nuen bide hori gustatzen zitzaidalako. LOGSEko lehenengo edo bigarren mailan, zein karrera egin nahi nuen erabakitzeko ordua heldu zitzaidanean, anaiak fisioterapiari buruzko komentarioren bat egin zuen, eta informatu ostean, interesgarria izan zitekeela ikusi nuen. Gaur egun karrera hori egiten ari naiz.

2 - Orain bigarren mailan zaude.

- Bai, hiru urteko karrera da eta nik bigarren urtea daramat bertan. Hasi nintzanean ez nintzen karrerari buruzko idea garbi batekin joan, baina urtebete eta erdi pasatu da eta oso gustura nago.

3 - Salamankan ikasten ari zara, ezta?

- Bai, hala da. Bertan pasatzen dut ikasturtea eta etxetik kanpo bizitzea niretzat esperientzia berria izan da. Debako lagun batzuekin joan nintzen, beraz, hasieratik jende ezaguna neukan inguruan. Bestalde, 200 ikasletako erresidentzia batean nagoenez, oso erraza da jende berria ezagutzea eta lagunak egitea. Nik karrera hasi arteko ikasketak euskaraz egin nituen eta hasieran beldurrez joan nintzen, han klaseak gaztelaniaz direlako. Hala ere, segituan ohitu naiz. Karrera Katalunian egitea ere pentsatu nuen baina hizkuntzarekin zailtasunak izango nituela uste nuenez, bide errazgotik joan nintzen.

4 - Zein motatako ikasgaiak daukazue?

- Fisioterapiako ikasgaia karrerako hiru urteetan ikasiko dugu, berau baita garrantzitsuena. AnATOMIako ikasgaia ere badaukagu, iaz orokorra izan zen, eta aurten muskuluen arloan sakondu

dugu. Psikologia, fisiologia, kirurgia... beste asignatura batzuk ere badaukagu. Batez ere, giza gorputzarekin zerikusia daukaten ikasgaiak dira.

5 - Praktikak egiten al dituzue?

- Bai. Aurten hiru eratako praktikak egiten ari gara. Batzuk ospitalean, besteak 'Centro de Atención Primaria' batean, eta ikasleok Unibertsitatean gure artean egiten ditugu praktikak. Fisioterapiako ikasgai erdia praktikak dira, beraz, unibertsitateak bideratzen gaitu ospitaleetara. Bertan dauden fisioterapeutei laguntzen diegu, pazienteei masajeak emanez eta makinak prestatuz. Erreabilitazioa egiten dute eta gehienak pertsona nagusiak direnez, kariñoa hartzen diegu eta baita beraiek guri ere.

6 - Zein irteera dauzka karrera hau ikasten duenak?

- Guk bi arlo ikasi ditugu; batetik, kirolari dagokiona, eta bestetik orokorra. Nik oraindik ez dakit zein bide hartuko dudan. Beharbada, karrera bukatzean espezialitatearen bat ikasiko dut, akupuntura, erreflexoterapia... Lanari dagokionez, gero eta aukera gutxiago daude. Lehen promozioetakoek, karrera berria zenez, lana lortzea errazagoa izan zuten. Norberak bere aldetik zer-bait montatzea oso zaila da, aparatua oso garestiak baitira. Nik karrera bukatutakoan praktikak egiteko asmoa daukat eta gero ikusiko dut...

7 - Zein ezaugarri behar ditu fisioterapeuta on batek?

- Askotan jendeak fisioterapia masajearekin nahasten du, baina ez da hori bakarrik, horren atzean gauza asko daude. Garrantzitsuena jendea tratatzen jakitea da, baina baita sendatzea ere, masajeen bidez, makinaren bidez...



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko . . . 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . . 740442
 PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . . 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua . . . 742158
 Mendaroko Udala . . . 756100
 Ongizate zerbitzua . . . 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa . . . 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . 740296
 Zaharren Biltokia . . . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 HHI (EPA) 74 08 80
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . . 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea . . . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco . . . 74 40 73
 El Correo Español . . 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki irratia 74 34 74

16

ostirala

22:30 KULTUR ERROTA

Partehartzaileak:
Tabu Tabar taldea, *Petti*
 bakarlarria eta *Ander Lipus*
 antzezlea. Gaztetxean
 Antolatzaileak:
 Elgoibarko Izarra eta
 Gazte Asanblada

22:30 ANTZERKIA

Antzezlanak:
 "No hay huevos"
 Antzeztaldea: Sobradún
 Herriko Antzokian

17

larunbata

10:00 A-8 AUTOPISTAREN INPAGO EGUNA

Irteera Lerungo industrialdean
 Antolatzaileak:
 A-8 Doan Plataforma eta
 talde ekologistak

17:00 AHTAREN AURKAKO MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSA

Madalan
 Antolatzailea:
 Debaldeko Gaztetxeen
 Koordinadora

19:30-22:15 ZINEA

"Cosas que importan"

18

igandea

11:00 HAUR KROSA

Irteera eta helmuga
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Ikastola

12:30 UDAL BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

19:30-22:15 ZINEA

"Cosas que importan"

19

astelehena

22:15 ZINEA

"Cosas que importan"

20

asteartea

18:30 HITZALDIA

Gaia: Sexua
 Mekanikako Areto
 Nagusian
 Antolatzailea: Herri
 Institutua

22

osteguna

22:00 ZINE KLUBA

"La manzana"
 Aurkezpena: Irati
 Elorrieta
 Antolatzaileak: Ongarri
 Zine Kluba, Haizea E. T.
 eta Emakunde

23

ostirala

17:00 IDAZLAN eta MARRAZKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA

Udal Liburutegian

22:00 ZINE KLUBA

"La vida soñada de los angeles"
 Aurkezpena: Belen
 Martinez, Emakundeko
 Heziketa arduraduna
 Antolatzaileak: Ongarri
 Zine Kluba, Haizea E.T.
 eta Emakunde

23:00 ASIER SERRANO POETAREN EMANALDIA

"Literaturatik Musikara"
 Lanbroa tabernan
 Antolatzailea: Urruzuno
 Literatur Taldea

ZINEA



Zuzendaria: Carl Franklin.
 Antzezleak: Meryl Streep,
 Renee Zellweger, William Hurt.

Cosas que importan

Ellen Gulden etorkizun oparoa duen New Yorkeko kazetari gazte eta handikoia da. Bizitzeko duen arazo nagusia lana da. Ellen-en ama (Meryl Streep) gaixotzen denean, ordea, erabat aldatuko zaio bizimodua. Izan ere, ama zaintzeko bere beharra izango dute familiakoek eta bere jaioterrira itzuli beharko du. Berehala konturatuko da gauzak ez direla gogoratzen zituen modukoak.

● Udaleko Musika Bandaren kontzertua

Igandean, hilak 18, Udaleko Musika Bandaren kontzertua izango da eguerdiko 12:30ean hasita. Jose Antonio Osorok zuzenduta, hauek dira joko dituzten piezak: *La Caleresa* (F. Alonso), *Bosgarren Sinfonia* (Beethoven), *Las dos Comadres* (Labit), *El Caserio* (Guridi) eta *Herb Albert Selection N°1* (W.P. Cloleman).

● Asier Serrano abeslari eta poetaren emanaldia hilaren 23an

Asier Serrano abeslari eta poeta eibartarrak, "Literaturatik musikara" izenburupean emanaldia eskainiko du datorren ostiralean, hilak 23, Lanbroa tabernan. Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, Urruzuno Literatur Taldeak Elgoibarko Izarraren eta Udalaren laguntzaz antolatutako saioa izango da. Asier Serrano 'Lorelei' taldeko abeslaria da. Literaturarekin zerikusia duten abestiak kantatu eta literaturak eta musikak duten erlazioaz hitz egingo du. Saioa gaueko 23:00etan hasiko da.

● AHTaren aurkako manifestaziora joateko autobusa

Elgoibarko Gazte Asanbladak autobusa antolatu du larunbatean, hilak 17, Donostian Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurka egingo den manifestaziora joateko. Elgoibarko Gazte Asanbladak bere atxekimendua adierazi nahi dio AHTaren Aurkako Asanbladak "AHT eta proiektu txikitzaile ez" lelopean antolatu duen manifestazioari. Beraz, herritarrak parte hartzea deitu nahi dituzte. Bertara hurbiltzea errazagoa izan dadin Debaldeko Gaztetxeen Koordinadorak autobusa antolatu du eta joan nahi duenak larunbatean, hilak 17, arratsaldeko 17:00etan Madalara agertzea baino ez du izango.

● Sexuari buruzko hitzaldia Herri Institutuan

Datorren asteartean, hilak 20, arratsaldeko 18:30ean Herri Institutuko (Mekanika) Aretu Nagusian sexuari buruzko hitzaldia izango da. DBHko 3. mailako, LOGSE 1. mailako eta LH-FPko 1. mailako gurasoei zuzenduta dago. Seme-alabei emandako sexu-heziketari buruzko informazioa eskainiko zaie bertara inguratzen direnei. Bileran gazteek sexuari buruz daukaten ikuspegi emango da ezagutzera, eta aurreko urteetan gertatu den bezalaxe, interesgarria izatea espero dute antolatzaileek.

● VI. Haur Krosa igandean, hilak 18

Ikastolak Haur Krosa antolatu du 6. aldiz. Igandean, hilak 18, izango da eta irteera eta helmuga Plaza Handian kokatuko dira. Lehen lasterketa goizeko 11:00etan hasiko da. 6 urtetik 16 urtera bitarteko 450 hurrek eman dute izena, Elgoibarkoak eta Mendarokoak. Gaztetxoak herriko kaleetan ibiliko dira antxitxika eta adinaren arabera ibilbideak burutu beharko dituzte. Azken bitarteketa 11:45ean hasiko dira eta amaitu bezain pronto sari banaketari ekingo zaio. Partaide guztiek jasoko dute domina eta adin bakoitzeko lehen neskek eta lehen mutilak trofeoa izango dute opari.

● Jubilatutako Etxekoek bidaiari Bizkaia

Jubilatu Etxekoek Bizkaia ezagutzeko txangoa antolatu dute. Maiatzaren 5ean izango da. Autobusa Plaza Handitik irtengo da goizeko 8:30ean. Zaharren Biltokiak Gizartekintza erakundearen laguntzarekin antolaturiko irteera izango da eta 2.500 pezeta ordaindu beharko ditu Bizkaia ezagutu nahi duenak.

T X A N D A K

FARMAZIAK

- | | Egunez | Gauetz |
|----|--------------------------------|------------|
| 17 | *Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |
| 18 | *Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |
| 19 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 20 | Escala | Escala |
| 21 | Bidasolo | Bidasolo |
| 22 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 23 | Anduaga | Anduaga |
- *Eguerdiko 14:00ak arte

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

18 igandea Idarraga

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Sara Makhmalbaf.
Antzezleak: Zahara Naderi, Massumeh Naderi, Ghorbanah Naderi.

La manzana

Aita batek ohitura erlijjiotsuak jarraituz, 12 urteko bi alabatxoak etxe barruan gartzeleaturik eduki ditu jaio zirenetik. Istorio honekin emakumeak Iranen bizi duen egoerari buruzko gogoeta egiten du pelikulak.

La vida soñada de los angeles

Patuak elkartu dituen 20 urteko bi emakume gaztek heldutasunari eta munduari nola egiten dioten aurre kontatzen digu filme frantziar honek.



Zuzendaria: Erick Zonka.
Antzezleak: Elodie Bouchez, Natacha Requier.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Esperientziadun kamareroa eta kamarera behar dira Elgoibarko taberna batean lan egiteko. ☎ 630 61 76 11
- ◆ Neska behar da etxeko lanak egiteko eta bi haur zaintzeko. ☎ 943 74 32 94
- ◆ Gaixo bat zaintzeko pertsona bat behar da; arratsalde 15:00etatik 21:00etara. ☎ 656 71 97 82
- ◆ Emakumea behar da Donostian behin-behineko egoitza duen senar-emaztea zaintzeko. ☎ 943 74 13 92

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Erizantzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauzez. ☎ 943 74 27 78
- ◆ Emakumea eskaintzen da etxeko garbitzeko. ☎ 943 74 41 70
- ◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 10:00etatik 16:00etara. Cristiana. ☎ 943 74 08 81-74 07 07
- ◆ Esperientziadun emakumea eskaintzen da gaixoak zaintzeko. Victoria edo Rosa. ☎ 943 74 04 86
- ◆ Etxea garbitu edo umeak zaintzeko emakumea eskaintzen da. ☎ 943 74 34 06
- ◆ Agureak, gaixoak, etab. zaintzeko prest nago. Arratsalde edo gauzez. Esperientziarekin. ☎ 630 20 97 31
- ◆ Neska eskaintzen da. Arduratsua eta esperientziarekin etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. ☎ 610 68 52 95
- ◆ Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 943 75 62 57
- ◆ Etxeko lanak egingo edo lokalak, dendak eta portalak garbituko nituzke. Esperientzia eta informesak ditut. ☎ 943 74 38 45 (Matilde. Erantzungailuan laga mezua)
- ◆ Ostalaritzan, umezaintzan eta garbiketean esperientziadun neska eskaintzen da. ☎ 943 74 22 03/943 74 07 07

Garajeak

- ◆ Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 03 81
- ◆ Leku Ederren garaje marraduna edo itxia alokatu nahi nuke. ☎ 930 54 99 31
- ◆ Garajea saltzen da Urasandi 6an. Argi independentea. ☎ 943 74 08 63

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Tabernako tresneria salgai: kafetera, molinilloa, ontziteria, mahaiak. Prezio onean. ☎ 943 74 43 45
- ◆ 1'35 m.ko ohearentzat ia berria den gerezi egurrezko oheburua salgai. ☎ 943 74 43 98
- ◆ Opel Corsa GSI (SS-AJ) salgai. ☎ 943 74 34 64 (Mikel, gauzez deitu).
- ◆ Kanpin denda altua salgai. 2 edo 4 pertsonentzat. Berria eta toldoarekin. ☎ 943 74 05 37
- ◆ Musika aparailua salgai. Platoa eta bi pletina dauzka. 5.000 peze-ta. ☎ 943 74 23 89 (Maria Jesus)
- ◆ Akuario guttiz ekipatua salgai. 70-40-35 neurrikoa. ☎ 943 74 18 34
- ◆ Karabana abantzearekin salgai. Adria 3,5m.koa. 4 pertsonentzako. ☎ 943 74 07 85
- ◆ Gorriarentzako aparatua saltzen dut. 8 hilabeteko garantia du. ☎ 943 74 21 40
- ◆ 14''ko pantaila, 10X CD ROMa eta S3 txartel grafikoa salgai. Oso merke. ☎ 943 74 00 07

Etxebizitzak

- ◆ Pisu txikia edo buhardila alokatu nuke. ☎ 943 74 23 63.
- ◆ Apartamentua salgai altzariekin Alcoceberren (Las Fuentes urbanizazioa). Hondartzara begira. ☎ 943 74 22 08 (Mari).
- ◆ Etxebizitza polita salgai. Altzariekin eta guttiz berriua. Bernardo Ezenarro 1, okindegi gainean. ☎ 943 74 17 95
- ◆ Lokal bat alokatu nahi genuke. 20.000 pta. ordaintzeko prest gaudela lokalaren arabera. ☎ 943 74 35 68 (Abraham)
- ◆ Buhardila bat alokatu nahi nuke. Gehienez 30.000 pta. ordaintzeko prest nago. ☎ 943 20 01 01
- ◆ Pisu edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 943 74 31 75
- ◆ Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua da, ganbara eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83 943 74 18 34
- ◆ Kanpora ematen duen pisua saltzen dut. Eguzkitsua. Lau logela, sukaldea, saloi-jangela, bi bainu-gela eta patio-trasteroa. Oso handia da. Urasandin. ☎ 943 74 14 54 (gauzez, 22:00-00:00)
- ◆ Pisu saltzen da Mendaron. 76 m2 ditu. ☎ 943 74 31 07

Bestelakoak

- ◆ Lokala traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezio eta egoera onean. ☎ 943 74 25 17
- ◆ Aurreko ostiralean, hilak 10, Pista Beltzeko banku batean argazki kamara utzi nuen ahaztuta. Topatu duenak deitu mesedez ☎ 943 74 00 73 telefonora.
- ◆ Minnie-ren belarritakoa galdu dut King Kong-etik Urasandira bitartean. Bilatu duenak deitu ☎ 943 74 40 56 telefonora.(Julene)
- ◆ 12m2ko lokala traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezio ona. ☎ 943 74 02 27.
- ◆ Duela astebate *Anayak* lantegiarren parean pultsera gorridun emakumezko erlojua aurkitu nuen. Udaltzainen bulegoan dago.
- ◆ Bi logela alokatzen ditut Santa Klara 20-7C-an. ☎ 943 74 24 06 (Mari Tere)
- ◆ Bi logela alokatzen ditut Urasandi kalean. ☎ 943 74 03 93 (19:30etik aurrera)

Agurrak

- ◆ Zorionak **Cristina**, 11 urte bete dituzulako. Lagun misterioitsu baten partez.
- ◆ Zorionak, zure urtebetetze eguna gaur, hilak 16, delako. Espero zenuen bezala ez dugu izenik jarri. Oso, oso, oso, oso ondo pasatzea eta opari asko jasotzea espero dugu. Zure lagun partez.
- ◆ Zorionak **Doctor Verdom-i** Eric-ekin 2 urte egin dituelako. Laguntxo batzuen partez. Opor zoriontsuak pasa Calipo!



◆ Zorionak **Ikerri** apirilaren 17an 2 urte bete-ko dituelako bere izeba Susanaren eta Osaba Joseren partez.



◆ Zorionak **Iñigo Agirre-gomezkortari**, apirilaren 13an urteak bete zituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Josebari** hilaren 21ean 6 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez, bereziki Maite-ren partez.

◆ Zorionak **amama Julitari**, hilaren 12an urteak bete zituelako. Animo eta jarraitu beti bezain alai eta martxosa. Familiako partez.



◆ Zorionak **Ainhoa** kuadrilaren partez 25 urte betetzeagatik. Ea beste horrelako asko ospatzera iristen garen denok batera. Zorionak eta berriz zorionak, zuk badakizu zergatik...



◆ Zorionak **Joseba Gabi-londori**, gaur, hilak 16, 7 urte bete dituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Miren Viñeri**, bihar, larunbata, 4 urte beteko dituelako. Etxeko gutzien partez; batez ere Maite-ren partez.



◆ Superzorianak **Cristina Conderi**, astelehenean, hilak 12, 11 urte bete zituelako. Aitarren, amaren eta ahizpa Amaia-ren partez.



◆ Zorionak **Issbel Diaz Mendiari**, igandean 2 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Alejandrari**, hilaren 5ean 6 urte bete zituelako. Bere lagun Ione Iraolaren partez muxu handi bat.




◆ Zorionak ahizpatxo **Julia**. Oso zaharra egin zara, 18 urte bete dituzu eta bas-toia beharko duzu. Zorionak gurasoen partez eta bereziki ahizpatxo Estelaren partez.

GLAZA

Pedro Muguruza, 8
Tel: 943 74 16 42

Jaunartzeak



ARANBURU

BITXIDENDA

GABONETAN ZOZKETATURIKO URREZKO BI ERLOJUEN IRABAZLEAK M^a PILAR LÓPEZ eta IRUNE ALBERDI IZAN DIRA. MILA ESKER BEZERO GUZTIEI eta ZORIONAK IRABAZ-



BESTE URTEETAN BEZALA ERAZTUN eta BELARRITAKO
KOPURU MUGATUA ERDI PREZIOAN DAUKAGU.

GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 16
☎ 943 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ 943 74 03 96

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 943 74 30 94

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61
☎ 689 04 92 06

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 608 77 29 32

ONGI

Urasandi, 8
☎ 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 608 14 30 40

ALFONBRAK TAPIZERIAK

LAU

San Frantzisko, 42
☎ 943 74 18 89
☎ 943 74 06 73

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

ELEKTRIZITA- TEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
☎ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 689 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 607 41 78 67